



01/2023 EBAZPENA, urtarrilaren 10ekoa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Kidegoko Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalako (C1 taldea) lan-poltsa eratzeko eta langileak sartzeko dena

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduak (urtarrilaren 25eko EHAA) ezartzen du EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari aplikatu beharreko araudia, eta 3. eta 4. artikuluetan ezartzen ditu administrazio honen lan-poltsak eratzeko eta lan-poltsetan sartzeko kasuak.

Gobernu Kontseiluaren 2022ko uztailaren 12ko Erabakiak, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen Mahai Sektorialaren Akordioa onartzen baita, Euskal Espetxeetako Administrazioan zerbitzuak ematen dituzten enplegatu publikoen zenbait alderdi espezifiko arautzen dituenak (EHAA, uztailaren 22koa), III. Eranskinean, aurreikusten du aldi baterako deialdi bat onartu behar dela EAEko espetxeen transferentziaren ondorioz hutsik dauden lanpostuak bitarteko izendapen bidez betetzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari eskaera bat eginez.

Aurreikuspen hori betez, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak eskaera eta txostena egin ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez, Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako espetxeetan (C1 azpitaldea) laguntzaile lanposturako lan-poltsa eratzeko hautaketa-prozesurako deialdia egin zen.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak (EHAA, abenduaren 26koa), azken xedapenetako hirugarrenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Kidegoei eta Eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2022 Legea aldatzen du, eta bosgarren xedapen gehigarri bat gehitzen du. Xedapen gehigarri horrek honako hau ezartzen du: *"Euskal Autonomia Erkidegoko Espetxe Administrazioko kidego bereziak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 76. artikuluan aurreikusitako taldeetan eta azpitaldeetan sailkatuta, honako hauek dira: (...) 3. – Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Kidegoa, C1 taldean"*. Era berean, zazpigarren xedapen gehigarri bat gehitzen du, eta, horren bidez, *"Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskala"* sortzen da.

Lan-poltsa eratzeko hautaketa-prozesuaren deialdia espetxeetan laguntzaile lanpostuak bete zitzaketen langileak edukitzeko egin zen. Lanpostu horiek Administrazio honetara transferitu ziren uztailaren 6ko 169/2021 Dekretuaren bidez. Hala ere, Euskadiko Espetxe Administrazioko kidego bereziak sortu berriak, azaroaren 11ko 7/2022 Legeak aldatetaren bidez, eragina du bai lan-poltsaren eraketan, bai amaitutako hautaketa-prozesuko langileekin aldi baterako zerbitzuak emateko egiten diren bitarteko funtzionarioen izendapenetan, EAEko Administrazio Orokorrean indarrean dauden kidego edo eskalei buruzkoak izan behar baitute. Horrenbestez, lan-poltsa Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Kidegoko Eskalan eratuko da, espetxeetako laguntzaile-lanpostuei dagokiena.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 018579 – Fax 945 018648



Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 2ko Ebazpenaren bidez (2023ko urtarrilaren 3an argitaratu zen atarian), aipatutako lan-poltsa eratzeko prozesuaren behin betiko emaitzak onartu ziren. 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez deitutako hautaketa-prozesuko merezimendu-lehiaketan eta prestakuntza teoriko-praktikoan izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak onartzea eta argitaratzea ebatzi du, eta hautaketa-prozesuaren emaitzak Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari helaraztea.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratu eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzari jakinarazi ondoren, Funtzio Publikoko sailburuordearen ebazpen bidez lan-poltsa eratuko da, eta deialditik datozen langileak bertan sartuko dira, ebazpen honetan jasotako baldintzetan.

Kasu honetan, kontuan hartuta Espetxe Administrazioan betetzen diren eginkizunen garrantzia eta horiek herritar guztiengan duten garrantzia, bai eta Justizia Administrazioko Zuzendaritzak Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Kidegoko Eskalako lanpostuak hautaketa-prozesuko langileekin betetzeko helarazi digun premia ere, beharrezkoa da Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Kidegoko Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalako (C1 taldea) lan-poltsa berehala eratzea, eta langile horiek lan-poltsan sartzea, hargatik eragotzi gabe Administrazioak sartzeko eta parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko duen ahalmena, egiaztapen osoa amaitu ez den kasuetan.

Azkenik, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera, ebazpen hau eta lan-poltsaren zerrenda argitaratuko dira EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Lan-poltsen Atarian.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021eko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 17. artikuluan eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 3. artikuluan esleitutako eskumenaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Kidegoko Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalako lan-poltsa eratzea eta langileak integratzea, ebazpen honen eranskinean ezarritako baldintzetan.

Bigarrena.- Ebazpen hau eta lan-poltsa hori osatzen duten langileen zerrenda Lan-poltsen Atarian argitaratzea. Atari horretara egoitza elektronikoaren eta helbide honen bidez sar daiteke: www.euskadi.eus/lanpoltsak

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Lan-poltsen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera .

Vitoria-Gasteiz,
Jose M^a Armentia Macazaga
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA

ERANSKINA

Lehenengo oinarria.- Eratutako poltsa.

Espetxe Administrazioiko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Kidegoko Espetxe Administrazioiko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalaren lan-poltsa eratu da.

Bigarren oinarria.- Lan-poltsa osatzen duten langileak

Espetxe Administrazioiko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalako lan-poltsan sartuko dira aipatutako lan-poltsa eratzeko prozesuaren behin betiko emaitzak onartzen dituen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 2ko Ebazpenaren eranskinean jasotako langileak.

Deialdian eskatutako baldintzak alegatu eta horiek egiaztatzeko izapideetan dauden langileak lan-poltsan sartuko dira. Hala ere, ezin izango da bitarteko funtzionario izendapenik formalizatu, deialdiaren oinarrietan aurreikusitako prozeduraren bidez betetzen dela egiaztatzen ez bada.

Hirugarren oinarria.- Ordena eta puntuazioa.

Langileak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 2ko Ebazpenaren eranskinean jasotako hautaketa-prozesuaren ondoriozko hurrenkeran integratuko dira, zero puntuazioarekin.

Laugarren oinarria.- Langileen egoerak eta lehentasunak

1. Langileak lanerako prest egoeran egongo dira.

2. Langile horiek honako aukera hauek izango dituzte lehenetsita:

- Edozein prestazio-modalitate
- Edozein lanaldi
- Edozein ordutegi
- Edozein eremu geografiko

3. – Interesdunek Lan-poltsen Atariaren bidez aldatu ahal izango dituzte prestasun-egoeraren aldaketa eta ebazpen honetan lehenetsita ezarritako lehentasunak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren ezarritakoaren arabera.

Aldaketek ondorioak izango dituzte egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarren oinarria.- Erregulazioa.

Lan-poltsa honako hauen bidez arautuko da: Agindua, 2021eko urtarrilaren 7koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duena (EHAA, 2021eko urtarrilaren 25ekoa); eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko uztailaren 12ko Erabakia, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen mahai sektorialaren erabakia, Euskal Espetxe Administrazioan zerbitzuak ematen dituzten enplegatu publikoen alderdi espezifikoak arautzen dituen (EHAA, uztailaren 22koa).

Bosgarren oinarria.- Publizitatea eta ondorioak

1.- Espetxe Administrazioko Zigor Betearazpeneko Laguntzaileen Eskalako lan-poltsa osatzen duten langileen zerrenda Lan-poltsen Atarian argitaratuko da. Atari horretara egoitza elektronikoren eta helbide honen bidez sar daiteke: www.euskadi.eus/lanpoltsak.

2.- Ebazpen honek eta lan-poltsa hori osatzen duten langileen zerrendak ondorioak izango dituzte Lan-poltsen Atarian argitaratzen denetik.